# «Gure amak antzerkian egin ez zuena agian guk egin dugu bertsoaren bidez»

## Carmen Ruiz amaren amets eta oroitzapenak jaso ditu Xabier Payak Iker Oruetaren marrazkiak dituen 'Bihotza kate' album ilustratuan

NEREA AZURMENDI

**DONOSTIA.** Xabier Paya Ruizek (Getxo, 1982) 2006an egin zuen famatu bere ama, Carmen, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi ostean bertsoak gaztelaniaz eskaini zizkionean, uler zitzan. Berak aipatu zuen atzo askok gogoan duten pasartea 'Bihotza kate' albumaren aurkezpenean. Amaren oroitzapen, bizipen eta hautuek zeharkatzen dute mutur batetik bestera Markina-Xemeingo Udalak antolatzen duen album ilustratuen Peru Abarka lehiaketa irabazi zuen lana, omenaldi kutsu nabarmena ere baduena.

Lehiaketa bi fasetan burutzen denez, Payaren testua saritu ondoren ilustratzaileei zuzendutako deialdia zabaldu zuten. Partehartze oso urriko edizioan –hiru proposamen baino ez ziren aurkeztu 60 jasotzera heldu den lehiaketara– Iker Orueta ilustratzaile bilbotarra nagusitu zen.

Behingoz bere buruari idazle kontsideratzeko baimena eman dion Payak eta Oruetak elkarrekin aurkeztu zuten atzo Donostian Erein argitaletxeak kaleratu duen albuma. Oso pertsonala eta familiakoa ematen badu ere, istorio unibertsala kontatzen du: nola baldintzatzen gaituzten gure erabakiek, eta nola eragiten dieten beste batzuei, alegia.



Iker Orueta eta Xabier Paya, atzo Donostian. MICHELENA

«Gure amak, bere bizitzako une batean, aukeratu egin zuen. Bide bat asmatu behar izan zuen gerora, amets berriak sortu eta erditu, eta pentsatu nuen historia hori idatzi beharra zegoela», esan zuen idazleak. Itzulpengintzan eta gidoigintzan besteen testuak itzultzen edo besteentzako lerroak idazten horrenbeste urte igaro ondoren, beretik emateko unea iritsia zela sentitu zuen Payak.

Amarekin batera landu ditu pare bat urtez, «pilula txikitan», 1944ko Bilbo erdaldunean jaiotako neskato haren oroitzapenak, garai batean izan zen gaztearenak eta seme-alabei, besteak beste, «artearekiko zuen pasio eta grina» transmititu zien emakume helduarenak. Ariketak balio izan dio ama hobeto ezagutzeko, «deskubritzeko iraganaren gauza ez hain ederrak» eta ulertzeko «zergatik garen sortzaileak anai-arrebak»; hau da, Xabier bera, Fredi anaia, bertsolaria (Bizkaiko txapelduna 2014an), musikaria eta zutabegilea, eta Itxaso arreba, aktore eta bertsolaria.

Familiak enpresa-mundura bideratu nahi zuen Carmen eta, «bere aitaren alaba txintxo», Merkataritza ikasketak egin zituen Bartzelonan. Zenbakiek umetatik zeukan antzerkirako, dantzarako eta musikarako joera ez zuten baretu, eta Bilbon antzerkia ikasi ondoren aukera izan zuenean Madrilera joan zen. William Layton entzutetsuarekin ikastera. Gerora izen handiak bilakatuko ziren aktore eta artistekin aritu zen ikasten eta lanean.

### Alboko bide bat

Ari zen aktore gisa aurrera egiten baina, une batean, aitak aurrez finkatutako bidetik aldendu eta bere bide propioa hartu zuenean egin zuen bezalatsu, bizitza beste norabide batean jarri zuen Carmenek. «Agian gure amak erabaki zuen bere pasioa, gogoa eta talentua beste bide batetik eramatea, eta oholtzan egingo zuena seme-alabengan proiektatzea», adierazi zuen Xabier Payak.

Carmen Ruizek azkenean hartu zuen bidea ez zen aitak nahi zuena, ezta antzerkiarena ere, «aurrera egin zuen beste bide batetik, alboko bide batetik, eta berak antzerkian egin ez zuena agian guk egin dugu bertsoaren bidez». Azken batean, Fidel Ruiz izeneko aitak amari asko eragin zion, eta amak seme-alabei ere eragin die gogotik. Hori ez da familia jakin eta bakar baten historia.

Testua berez ipuin bat bada ere, antzerki kutsua du. Iker Orueta segituan ohartu zen: «Irudi bila irakurri nuen, eta oso goiz etorri zitzaizkidan burura antzerki mundua eta eszenografiak. Deskubritu nuen Carmenen indar nagusietako bat antzerkia zela, eta lotura hori ikusi nuenean lana eraman nuen distantzia hartzen eta nire interpretazioa egiten asko lagundu zidan metanarratiba batera».

# Los premios Goncourt y Booker siguen la estela del Nobel y miran a África

## El senegalés Mbougar y el sudafricano Galgut se adjudican los grandes galardones de las letras francesas y británicas

MIGUEL LORENCI

**MADRID.** El joven senegalés Mohamed Mbougar Sarr (Dakar, 31 años) y el veterano autor blanco sudafricano Damon Galgut (Pretoria, 63 años) entraron ayer a lo grande en la historia de la literatura. Son los respectivos ganadores de los premios Goncourt y Booker, los más prestigiosos de la letras francesas y británicas. Unos galardones que miraron a África siguiendo la estela de Nobel que distinguió a Abdulrazak Gurnak. El primero esta dotado con un magro cheque de 10 euros y el segundo con casi 60.000. Pero ambos garantizan a sus ganadores la gloria literaria y ventas millonarias.

Mohamed Mbougar Sarr, un perfecto desconocido para el gran público, es el primer escritor del África subsahariana que obtiene el Goncourt. Con su novela 'La plus secrète mémoire des hommes' ('El recuerdo más secreto de los hombres') era el gran favorito y se impuso en la primera ronda con seis de los diez votos de los jurados a otros tres finalistas: 'Le Voyage dans l'Est', de Christine Angot; 'Enfant de salaud', de Sorj Chalandon, y 'Milwaukee Blues' de Louis-Philippe Dalembert.



Mohamed Mbougar Sarr

El presidente de la Academia Goncourt, Didier Decoin, calificó la novela ganadora de «himno de la literatura». Un relato que recupera la figura del escritor maliense Yambo Oulologuem, el Rimbaud negro, un autor maldito sobre el que articula una historia de amor y política comprometida contra el colonialismo.

Galgut ganaba el Booker en tercer intento con su novela 'The Promise' ('La promesa'), tras ser nominado previamente en 2003 y 2010. Sigue el declive de una familia sudafricana durante cuatro décadas desde la era del apartheid hasta hoy.



Damon Galgut

La presidenta del jurado, Maya Jasanoff, lo describió como 'un tour de force' «que combina una historia extraordinaria, con ricos temas y la historia reciente de Sudáfrica en un paquete increíblemente bien elaborado». «Es un libro que tiene mucho que masticar, con una atención notable a la estructura y el estilo literario», dijo.

# Muere Pat Martino, eslabón final de una estirpe de guitarristas de jazz

DOMÉNICO CHIAPPE

**MADRID.** Poco antes de que una enfermedad respiratoria le impidiera seguir tocando en público, el excepcional guitarrista de jazz Pat Martino hacía una versión vertiginosa y limpia de 'Full house', el tema de Wes Montgomery. Martino se lució en Suiza e Italia. Pero tuvo que abandonar la gira. Retaba así a un destino que le obligó a retirarse de los escenarios. El pasado 1 de noviembre falleció en Filadelfia (Estados Unidos), a los 77 años.

Mago del bebop, el hard bop y el cool jazz, Pat Martino es el final de una línea de guitarristas de jazz que elevaron este instrumento hasta un nivel similar al de los metales. En 1976, Martino se sometió a una cirugía cerebral para tratar de remediar sus frecuentes epilepsias, que le producían amnesia. Dicen que volvió a aprender desde cero. Estuvo listo para su segundo debut en 1984.

Su legado tiene el nombre de sus álbumes: 'Desperado', 'Remember Tribute To Wes Montgomery', 'Impressions', 'East', 'Footprints', 'All Sides Now' o 'Think Tank' (nominado a los Grammy), y las horas de música en vivo que dejó en la memoria, y algunos en acetato, como en 'Live at Yoshi's'.

# Rosalía publicará su nuevo álbum, 'Moto Mami', en 2022

R. C.

**MADRID.** La cantante Rosalía ha anunciado en un vídeo en sus redes sociales que sacará al mercado su nuevo álbum 'Moto Mami' para 2022, su tercer álbum tras los exitosos 'El mal querer' y 'Los ángeles'. A través de un vídeo de 16 segundos en sus redes en el que se repite la palabra 'Moto Mami' en la música y la iconografía, aparece el lema 'new album 2022' (nuevo álbum 2022). El anuncio se produce tres años después de la publicación de su anterior LP, 'El mal querer', un periodo en el que ha ido editando singles en colaboración con artistas como Billie Eilish, J Balvin, Ozuna y Travis Scott, entre otros.